



## **BOTANICAL FRENZY**

Bego Antón

2022ko uztailaren 15etik irailaren 11ra  
Del 15 de julio al 11 de septiembre de 2022



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

*Botanical Frenzy* ikerketa bisuala da, kolonialismo botanikoaren eta landareekiko itsutasunaren historia jorratzen duena “orkideen sukarra” deritzon fenomenoaren bitartez.

Sir Joseph Bank-ek 1768an ekarri zituen lehen orkideak Europara, Ekialdeko Indietatik, Cook kapitainaren *HMS Endeavour* ontzian botanikari gisa bidaia luzea egin ondoren. Horrela piztu zen orkideen sukarra, lorea gizarte viktoriarren estatus-ikur bihurtu baitzen. Aberats britainiarrek ehiztariak bidaltzen zituzten munduan barrena, ‘zientziarako orkidea berriak’ bilatzera. Haiek ez zuten inolako eragozpenik oihanak arpilatzeke eta loreak hazten ziren zuhaitzak moztu eta erretzeko, eta horrek beste espezie asko galtzea ekarri zuen. Bitartean, Britainiar Inperioan, orkideak enkantean jartzen ziren, milaka liberan.

Urteetan zehar, munduko hainbat tokitako lorategi botanikoetako zuzendariak eta museoetako komisarioek orkidea-ehiztariaren epopeiak nabarmendu dituzte, heriotzari ere aurre egiten baitzioten, eta benetako heroitzat hartu dituzte. Baina, egia esan, askotan alde batera uzten dira espedizio haietan gertatu ziren gauza lotsagarriak.

Europako kolonoek naturaren eta gizakiaren arteko orekaren zati handi bat suntsitu zuten, orkideen sukarra ez baitzen inoiz gelditu. Gaur egun, munduan ezagutzen diren 380.000 landare-espezieen % 20 desagertzeko arriskuan dago. Bestela esanda, kalkulatu da bost landaretatik bat desagertzeko arriskuan dagoela.

Aribideko ikerketa honek esplorazio botaniko horiek hala kolonizatutako lurretan nola Europako kontinentean izan dituzten ondorioei buruz hausnartzen du, ibilbide bat eginez orkideen merkaturatzearen historian zehar, 1768tik (lehen landarea Europara iritsi zenetik) 1930-50eko hamarkadetararte, orduan emakumeei aukera eman baitzieten azkenik haiez gozatzeko.

*Botanical Frenzy* es una investigación visual que recorre la historia del colonialismo botánico y la ceguera vegetal a través del fenómeno conocido como ‘la fiebre de las orquídeas’.

En 1768 Sir Joseph Bank introdujo las primeras orquídeas en Europa desde las Indias Orientales tras un largo viaje como botánico a bordo del *HMS Endeavour* del Capitán Cook. Así comenzaba la fiebre de las orquídeas, convirtiendo la flor en símbolo de estatus de la sociedad victoriana. Adinerados británicos enviaban a cazadores alrededor del mundo para buscar orquídeas ‘nuevas para la ciencia’, que no temblaban a la hora de saquear las selvas y talar y quemar los árboles en las que crecían, lo que resultó en la extinción de otras muchas especies. Mientras tanto, en el Imperio Británico, las orquídeas se subastaban por miles de libras.

Durante años, directores de jardines botánicos y comisarios de museos de diferentes partes del mundo han resaltado las epopeyas de los cazadores de orquídeas (que desafiaban incluso a la muerte) y los han tratado como verdaderos héroes. Pero lo cierto es que a menudo se obvian las vergüenzas que también sucedieron durante dichas expediciones.

Los colonos europeos destruyeron gran parte del equilibrio entre la naturaleza y el hombre, debido a que la fiebre de las orquídeas nunca se detuvo. Hoy el 20% de las 380.000 especies de plantas del mundo (que conocemos) se encuentran en peligro de extinción. O dicho de otro modo, se calcula que una de cada cinco plantas está amenazada con desaparecer.

Esta investigación en curso reflexiona sobre las consecuencias de estas exploraciones botánicas tanto en las tierras colonizadas como en el continente europeo, haciendo un recorrido a través de la historia de la comercialización de orquídeas desde 1768 (cuando llegó la primera planta a Europa) hasta la década de 1930-50, cuando a la mujer se le permite por fin disfrutar de ellas.